




Zaldun Urdina, Horia eta Gorria
Dragoi Handiaren gaztelurantz abiatuko dira.
Baina behar al du printzesak norbaitek salbatzerik?

Narrating Equality haur literatura lehiaketaren
IX edizioko liburu irabazlea.



Mendiez haraindiko printzesa

Valeria Angela Pisi Francesc Rovira



Mendiez haraindiko printzesa

Valeria Angela Pisi Francesc Rovira



Mendiez haraindiko printzesa Narrating Equality haur literatura
lehiaketaren IX edizioko testu irabazlea da.

Woman to be elkarte italiarrak sortutako sari honek estereotipo sexistarik gabeko identitate libreekiko
errespetua eta berdintasuna sustatzen dituen literatura zabaltzen du.



Anitari, mendiez haraindiko printzesari.

Valeria Angela Pisi

*Nire amari, berdintasun, askatasun
eta anaitasunean hezi gintuenari.*

Francesc Rovira

Mendiez haraindiko printzesa

Egalité Bilduma

© testuarena: Valeria Angela Pisi, 2025
© ilustrazioena: Francesc Rovira, 2025
© argitalpenarena: NubeOcho, 2025
© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2025
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *La principessa oltre le montagne*

Narrating Equality koordinazioa: Maria Grazia Anatra y Miryam Aguirre

Lehen argitalpena: Urria, 2025

ISBN: 979-13-87834-63-0

Gordailu Legala: M-15865-2025

Portugalen inprimatua.


Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta dago ale honen kopiaketa.



Mendiez haraindiko printzesa

Valeria Angela Pisi

Francesc Rovira



Bazen behin, ez uste duzuna bezain aspaldi,
erreinu urrun batean bizi zen Errege atsekabetu bat:

—Dragoi Handiak Printzesa bahitu du —esan zien zaldun guztiei—.
Salbatzen duenak gazteluko altxorra jasoko du saritzat.





Zaldun Urdinak egun osoa pasa zuen zaldi gainean
Dragoi Handiaren gaztelura iritsi zen arte.

—Printzesa, zu salbatu eta zure aitarengana,
Erregearengana, eramatera etorri naiz —esan zuen Zaldun Urdinak.





—Nik hemen geratu nahi dut! Jauregian ezin dut ezer egin
eta aspertu egiten naiz —erantzun zuen Printzesak.

—Baina ni zu salbatzera etorri naiz... eta salbatu egingo zaitut!

—Ez al duzu ulertzen ez dudala salba nazaten nahi?

Printzesak Zaldun Urdina mendiez haraindi bidali zuen,
karate-giltza bat eginez.



Biharamunean, Zaldun Horia iritsi zen
Dragoi Handiaren gaztelura.

—Printzesa, zu salbatzera nator! —oihukatu zuen.

